AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Oposaketak eta lehiaketak

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA, NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

4283

AGINDUA, 2011ko uztailaren 15ekoa, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarena, sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa bete gabe uzten duena.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2.c) artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragartzen duen Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2011ko apirilaren 5eko Aginduaren hirugarren oinarrian agindutakoa betez (2011ko maiatzaren 9ko EHAA), honako hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe utzi da goi-kargudunaren idazkari lanpostua Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren Arrantza eta Elikagaien Industriako Sailburuordetzan (520010 kodea; 141. dotazioa).

Bigarrena.– Agindu honek administrazio-bidea agortzen du, eta bere aurka, berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal zaio Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuari, hilabeteko epean, agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, bi hilabeteko epean, agindua EHAAn argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 15a.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua,
MARÍA DEL PILAR UNZALU PÉREZ DE EULATE.